OLASO
DORREA
FUNDAZIOA

2020 ko
EKITALDIAREN
MEMORIA

1- 2020ko ekintzen memoria

1.1. Olaso Dorreko mantenua

1.1.1. Lorategia

Eguneroko egin beharreko mantenu eta garbiketaren lanak.

1.1.2. Orokorrean kanpo eta barruko garbiketa

Teilatua, atariak, barruko gelak eta saloiak etab. Aurten bisitak egin ahal izateko garbiketak sakonagoak izan dira, besteak beste: farolak, argi-armiarmak, eskailerak eta zorua behar zuen lekuetan argizaria eman eta leundu, jarleku batzuk erretiratu, alfonbra batzuk kendu eta beste batzuk aldatu, armairuetan oraindik gordetzen zan arropak atera eta Emausera eraman (8 kutxa handi arropaz eta bi txiki oinetakoaz).

Dorrearen bisitak direla eta kamerekin zaintza sistema berri bat jarri da ere,eta honek ekarri du dorreko geletik kontrol zentrora bistan doazen kable guztiak pintura medioz ezkutatzea. Suteen kontrako eta mugimendurako alarma sistemen orain arte bistan ziren kableak ere, aprobetxatu da ezkutatzeko.

1.1.3. Ezarritako protokoloari jarraituz urteroko ikuskapenen fitxa

2012 urtean amaitu zen eraikinen zaharberritzearen ondorioetako bat eraikinaren mantenu sistematikoaren beharra izan zen. Izan ere mota honetako eraikin askok (publiko zein pribatuak) eraikinaren zati/leku garrantzitsuetan mantenu falta izaten dute, eta gabezia horren ondorioz iraganean jasandako kalteak errepikatu egiten dira. Garrantzitsua da teilatuko teilak egoera onean eta ondo kokatuta egotea, euri urak bideratzen dituzten kanaloi eta hobiak osorik eta garbi egotea, instalakuntza elektrikoa zein estolderia instalakuntza egoera onean mantentzea etab. Gai hauen garrantziaz jabetua, Olaso Dorrean protokolo bat ezarri dugu, zeinaren ondorioz urtero berrikusten dira eta ikuskapen bakoitzeko fitxa bat jaso eta mantenu liburu batean gordetzen da. Hau dela eta 2020ko fitxak ere bete izan dira, eta ikusi diren konpontzeko beharrak bete dira, margo lan txiki batzuk, kanaloien garbiketak, belarrak kendu etab.

1.2. Fundazioaren ekintzak

1.2.1. JAKIUNDEren jardunaldia

JAKIUNDE Akademiarekin sinatutako hitzarmenak esaten duena beteaz, aurten ere JAKIUNDEren egoitza mantendu eta zaindu du Olaso Dorrea Sorrerakundeak, bulegoen eta azpiegituraren mantenua barne sartzen delarik, baita igogailua, telefonoa zein argindarraren ordainketa.

Covid-19 pandemia dela eta 2020ko Batzar Nagusia ez da egin.

1.2.2. GIZABIDEAren jardunaldiak

Olaso Dorrea Fundazioa eta Gizabidea Fundazioaren arteko hitzarmenari eutsiz, areto nagusian zenbait bilera egin dira urtean zehar.

1.2.3. NABARRALDEren jardunaldiak

Gure lurraldearen eta historiaren kontaketa berreskuratzeko eta ahazturari aurre egiteko helburuarekin, otsaila eta martxoaren artean Nabarralde Fundazioak eta Bergarako Udalak, Olaso Dorrea Fundazioa laguntzaile bezala edukita, **"EUSKAL HERRIKO HISTORIA ETA NORTASUNA"** izeneko jardunaldiak antolatu zituzten. Udaletxean, **"Nafarroa, Euskal Estatua"** Iñigo Larramendi eskutik erakusketaren aurkezpena izan zen eta Olaso Dorreko areto nagusian konkretuki, **"Arantzazu, harriz herri"** dokumentalaren aurkezpena (Angel Rekalde), **"Euskararen historia"** hitzaldia (Juan Martin Elexpuru) eta **"EUSKAL HERRIKO HISTORIA"** izenburuarekin lau klaseko ikastaroa eman zen, azken hau Beñi Agirreren eskutik.

1.2.4. Bergarako Euskal Memoria Taldea

Bergarako Euskal Memoria Taldeko kideen laguntzarekin, Maite Aristegik eta Ekaitz Aranberrik **"EGIA BAT"** izeneko dokumentalaren egileak azken hau, dokumentala beraren aurkezpena egin zuten otsailean Olaso Dorreko areto nagusian.

1.2.5. Mindanaotik etorritako taldea

Otsailean, TM eLaben Partekatuz proiektuaren baitan, Mindanaotar abertzale talde bat izan zen Olaso Dorrean bisitan. Argazkian Bergarako alkatearekin eta beste udal agintariekin.

1.2.6. "Euskal Matxinada" liburuaren aurkezpena

Irailean, Olaso Dorreko areto nagusian, Andoni Olariagak idatzitako "Euskal matxinada" liburuaren aurkezpena egin zen.

1.2.7. Argazki fondoaren osaketa eta digitalizazioa

Ia zazpi mila argazkiko fondoari dagokionez, jarraitzen dugu data basean argazkien informazioa sartzen: Horretarako lehenik eta behin argazkian bertan begiratzen dugu, ea idatzita daturen bat agertzen den. Oso gutxitan agertzen da hau, beraz, interneten begiratuta, Olaso Dorrean diren zenbait argitalpenetik (Enbata, Punto y Hora, etab.) eta Monzon familiarekin lotura izan zuten hainbat lagunekin alderatuz egiten ari gara lan honen osaketa. Zailtasunak zailtasun, sortzen ari garen data basea osatua da eta etorkizunean kontsulta publikorako tresna baliotsua izango

Besteak beste, Telesforo Monzon Igeldoko hotelean



Argazkien artxibo digitala



Argazki artxiboaren data-basea

1.2.8. Artxiboen kudeaketa

Artxibora kontsultak egitera etorri diren ikerlariei arreta eman. Olaso Dorrean kokatuta dagoen artxibategi historikoan kontsulta egiteko eskaerak gero eta maizago ematen dira, eta dedikazio garrantzitsua eskatzen dute. Izan ere, artxibategian bertan ezin dute bisitek "eskua sartu". Artxibategiko dokumentuen zerrenda eskaintzen zaio bisitariari eta honek interesatzen zaizkion dokumentuak identifikatuta, Olaso Dorreko langileak artxibategitik atera eta kontsultarako uzten dizkio. Horretarako eta era duinean lan egin ahal izan dezan, ikerlariari bulego bat eskaintzen zaio. Era honetan artxibategiko dokumentazio guztia kontrolpean dagoela eta modu egokian zaintzen dela ziurtatu dezakegu.

Bisita fisikoez gain, ugari izan dira Olaso Dorrea Fundazioaren jabego pean baina Euskaltzaindiak gordailuan duen Lacombe fondoaren bildumako lanen kontsulta eskatzen ikertzaileak. Kontsulta eskaera guzti hauek Euskaltzaindiako langile batek jasotzen ditu eta Olaso Dorrea Fundazioari baimen eskaera luzatzen

dio. Normalean ez da arazorik izaten eta Fundazioko Lehendakariak baimenak onesten ditu.

Kopia Eskaerak:
Aurten 11 izan dira Euskal Herritik eta kanpotik jaso diren eskaerak.

-**Jabier Kaltzakorta**, euskaltzain osoa, filologoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea. Pregarioac Bayonaco diocezacotz / Ioannes d'Olce Bayonaco Iaun Aphezpicuaren manamenduz ordenatuac eta imprimariac.-- Bordelen : G. de la Court ... baithan, 1651. [4], 28 or. ; 8-rena (17 cm) .ES-BiE00046101c * OD-739, CD-0073 Lacombe Biblioteka. Pergamino-azaleztapena.

- **Etxepare Institutoa** (Eusko Jaurlaritza, Kultura saila) ,laster argitaratu nahi duten liburu batean irudi batzuk argitaratzeko. Irudi horiek "Etxeparek argitaratuko duen EUSKAL KULTURA bildumako Euskararen Historia Laburra –Iván Igartua eta Xabier Zabaltza–liburuxkan erabiliko dira." (Etxepare Institutuaren mezua)
Ariel : courrier des Pyrénées, et de l'Imbecilium-Club de Paris : journal scientifique, artistique et littéraire.-- [N. 1 (6 oct. 1844)-n. 1240 (19 févr. 1852)-- Bayonne : Imp. Duhart-
Fauvet et Maurin, 1844-[1852]
Libk. ; 37 cm.
Astekaria
Deskribapena ondokoan oinarritua: n. 6 (10 nov. 1844)
Argitalpenaren bigarren data Jon Bilbaoren Bibliografiatik jasoa.
Bestelako azpizenburuak: Courrier de Cantabrie et de Navarre (1845) ; Courrier de Vasconia (1846) ; Le Republicain de Vasconie (1848)
Gehigarria: Ariel. Uscal-Herriko gaseta, 1848.
Zuzendaria: Joseph Augustin Chaho
EDUKIA: 1844: 6-8 zenb.
* OD-1583, CD-0642 Lacombe Biblitoeka (Nº 6)
* OD-1584, CD-0643 Lacombe Biblioteka (Nº 7)
* OD-1585, CD-0644 Lacombe Biblioteka (Nº 8)
Alegia, praktikan eskatu dutena da Augustin Xahoren "Uscal-Herriko gaseta"-ren IRUDI
BAT liburu batean argitaratzeko baimena.

- **Jabier Kaltzakorta**, euskaltzain osoa, filologoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea. Honako liburuenak:
ABA-LAC 142-548/553 Bertsoak.
ABA-LAC 143-554 Bertsoak.

- **Jabier Kaltzakorta,** euskaltzain osoa, filologoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea. Sen Grat / Oloroueco aphezcupiarentzaco Mous de Lassalle catradaleco eretorac erran dutianac uscaraz ezariric.-- Pau : Vignancour : F. Lalheugue, 1879.

-**Jabier Kaltzakorta,** euskaltzain osoa, filologoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea.
ABA-LAC, 104-36 BONAPARTE, L.L. - Aezkoa, Salazar eta Erronkariko euskara HORTAZ GAIN, Kaltzakortak adierazi du interes handia lukeela dokumentua bera bere begiekin ikusten, eta gertu dagoela Bergarara joateko egun bat adosteko.

-**Jose Maria Rementeria.** Ondarroako parrokoa eta ohorezko euskaltzaina Apezendaco dotrina christiana uscaras : apecec eta leitcen daquitenec eracusteco, eta explicatceco uscaldun puro leitcen estaquitenei, aiec aitus, eta memorias icasteco / eguindu Jesusen Compañiaco erreligioso erretore missionero ... Francisco Elizaldec.-- Iruñan : Alfonso Burguere alargunaren echean : eta salcen da Hospital Generalean, 1735. OD-942, CD-0120 Lacombe Biblioteka.

-**Jose Maria Rementeria.** Ondarroako parrokoa eta ohorezko euskaltzaina Cristau-doctrina / Aita Gaspar Astetec erdaraz escribitua ; eta orai escuaraz publicatzen duena, cembait gauza aumentaturic, Baztango Valleco Parroco Batec, cristau fielen instruccionearen deseyuz.-- Pamplona : Imprenta y Librería de R. Bescansa ..., 1875. 112 or. ; 11 cm. Izk. 45991 * OD-1936, CD-0361 Lacombe Biblioteka.

- **Kepa Altonaga** euskaltzain urgazlea, biologoa eta EHUko irakaslea Laphurdiko Konfrarioaren kondizioneac / Dominique Sescosse Uztaritzeko Jaun Auzaphezac herriko konxeilluari presentatuac Oxailaren hamarrean mila zortzi ehun eta hirur hogoi eta zazpian = Status de la Société d'Assurance mutuelle La Labourdine / présentés par M. Dominique Sescosse Maire d'Ustaritz au Conseil Municipal de la Comun le dix de Février mil huit cent soixante-sept.-- Baionan : P. Lespes, [1867?] 43 or. ; 17 cm. Testu elebiduna euskaraz eta frantsesez. Aipamen bibliografikoa: Vinson 375ESBiE00043533c. OD-2084, CD-0402 Lacombe Biblioteka

- **Anne de Galzain.** Zinemagile, Dokumental baterako Telesforo Monzonen audioak (elkarrizketak, mitinak...).

- **Xoxe Estévez.** Historialari eta idazlea Deustuko Unibertsitatearen eta Nazaret Zentroaren irakaslea ohia. GALEUZKAri buruzko ikerketa bat egin ahal izateko; Telesfororen gutuneria kontsultatu, eta argazki fondotik, 1979ko "Día de la Patria gallega" argazkien kopia : ODS_arg_11-11a_042, ODS_arg_11-11a_043, ODS_arg_11-11a_044

-**Roberto Dagnino.** Ikerlari eta irakazlea, Estrasburgoko Unibertsitatean Nederlanderako departamenduaren zuzendaria. Artikulu bat (edo gehiago) idazteko nahiean, Flandriarekiko lotutako arreta berritzea Euskal Herriko prentsan, baita ere Euskal Herria eta Flandriaren arteko harremanak eta euskaldun eta flandriar alderdi edo erankundeen arteko harremanei buruz ikertzeko: "Volksunie (Flandria) partidu polikoarekin harremanak" ODS-31_2.2./92, "Telesforo Monzonen harremank Fladriako abertzaleekin" ODS-22_2.2./48, "Telesforo Monzonen ekintza polikoak" ODS-31_2.2./86, ODS-72_4.2./8

Artxiboaren irudia

Artxibora kontsultak egitera etortzen direnei, eskaintzen zaien bulegoa.

Gaur egun Olaso Dorrean kokatuta dagoen familiako artxibo barruan bi zatiren digitalizaziorako lehen pausoak ematen hasi gera. Bietatik bat digitalizatu "besterik" ez da egin, eta bestea, nahiz eta gainetiko antolakuntza egina egon, zehaztea falta da, gero digitalizazioarekin hasi ahal izateko. Lan hau burutu eta gero , ona hemen gure **helburua:** Orain arte eraman dugun kontsulta-ereduarekin amaitu, ikerlarien dokumentazio bilakaera erraztea, eta Olaso Dorrea Fundazioaren artxiboa modu interaktibo eta integratuan denon eskura utzi ahal izatea.

Baita ere, aurre pauso bat eman behar dugula ikusi dugu eta, Euskal Herrian dauden beste artxibategiekin (akordioen bidez) eta beti gure artxiboaren dokumentazioarekin zer ikusia duenean, dokumentazio hori elkar partekatzea ere.

Aurten ere Telesfororen audioekin artxibo bat sortu nahi izan dugu eta horretarako lehen pausuak eman dira. Zenbait kutxetan sakabanatuak ziren cassettteak antolatu, merezi zutenak aukeratu eta ostean digitalizatu. Euskarri zaharrean (bobinak) dauswn grabazioak agertu dira ere ea aurten lortzen dugun digitalizatzea. Horrekin osatuko zen "Telesforo Monzonen audio artxiboa".

1.2.9. Liburutegiak

Monzon-Ganuza liburutegiaren atal bat.

Bi dira Fundazioak dituen Liburutegiak. Gaur egun Euskaltzaindiak gordailuan duena, **1.930 liburu**ekin osatzen dena (G. Laconbe Funtsa liburutegi a) eta Monzon-Ganuza liburutegia, azken hau **2.215 liburu**kin osatuta. Azken liburutegi hau XVI mendetik XX mendearen hasiera arte inbentariatuta egon arren, XX mendeko azken hamarkadak falta dira, eta lan hau da, epe motzean proiektatua duguna.

Azken liburutegi honekin lotuta, 2020 urtean Bergarako familia baten liburutegiaren dohaintza jaso genuen. Dohaintza honek biblioteka hau osatuko zuela pentsatuz, Juan Martin Elexpuru euskal idazlearekin harremanetan jarri genuen, eta baheketaren sistema erabaki eta gero, jada Dorrean daukagu euskara eta euskal idazleen liburu multzo bat, lehendik zegoen bibliotekari aberats

deiozaion. Hemendik gure esker onak, bai Juan Martini, bai familia horri.

Momentu honetan beste lan bat burutzen ari gara, hau da; Dorrean kutxetan gordeta ziren XX garren mende osoko izenburu ezberdinak dituzten aldizkariekin, bilduma bat osatzen ari gara liburutegi berari gehitu asmoz.

Gaur egun antolatutak diren aldizkariak

1.2.10. G. Lacombe funtsa

Aurreko puntuan aipatu dugun bezala G. Lacombe funtsaren barruan 1.930 liburuz osatutako biblioteka Euskaltzaindiak du gordailuan, baina biblioteka hori CD euskarrian Dorrean dago (liburu bat CD bat). Aurten, nahastuak ziren kutxen antolaketa bete da CDen bilakaera erraztu ahal izateko.

Asmo berdinarekin, Fondo barruan kokatuta dagoen artxiboa eta CD euskarrian gordeta dagoen artxibo bera (CD bakoitzaren edukierarekin) oinarri Excel bat sortu da aurkibide gisa.